

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko. Hauexek izan daitezke kostuen egituren ezaugarriak: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.



Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Bi negozio-eredu mota nagusi bereizten dira, beren kostu-egitura kontuan hartuta. Balioan oinarritutako negozio-ereduak ditugu, enpresen interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea (beren produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz, marka, etab.). Gainera, pertsonalizazio-maila handia eskaintzen dute. Luxuzko hotelak, adibidez, mota horren barruan egongo lirateke, bertan eskaintzen dituzten era eta zerbitzu eskusiboak direla eta.

Gu azken honetan zentratuko gara gure ideia aurrera ateratzeko momentuan. Alkohola eta bestelakoak detektatzeko gailua prezio guztietakoa aurki daiteke, bai merkeagoa eta baita askoz garestiagoa ere, guk erdi bidean dagoen bat hautatu dugu, zehazki 300€koa. Hau izango litzake gure kostu aldakorra, ondoren gidari profesionalen garraioak egiten dituzten enpresei salduta aterako genuke dirua. Ondoren gailua garraio horietan jarri ondoren geroz eta gehiagotan egon horretatik aterako ditugu irabaziak.

Kalitatea guretzako oso garrantzitsua da, azken finean gure helburua hasiera batean ibilgailuetako gidari profesionali segurtasun handiago bat ematea baita eta etorkizunean ibilgailu guztiei ezartzea, bai profesional, bai pertsonalei. Hasieratik, gailuaren kalitate bikainaren ondorioz, segurtasuna bermatuko dugu gizartean, beraz, gu merkatuan arrazoi horren ondorioz gailenduko garela esan dezakegu. Hau da, gizartean alkohol arazoengatik sorrarazten diren arazoak murriztea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Guk honako gailu hauek leku batean gorde behar ditugu ondoren garraioak fabrikatzen dituzten enpresei emateko eta horretarako lokala behar izango dugu. Hori kostu finko garrantzitsu bat izango da eta gutxi-gorabehera hilabeteko 1.500€-ko kostua izango duela pentsatzen dugu. Horrez gain, merkatuan beste enpresekiko desberdintasunak egoteko software bat sortzea pentsatu dugu horrela guk emandako pasaitza beharko dute putz egiteko gailuak zenbateko alkohola edo bestelakoak dituen identifikatu eta pantailan ateratzeko, honek 30.000€ko kostua izango luke. Hori gutxi balitz bezala, marketing-a oso garrantzitsua izango da lehiakideen artean gailendu eta bezeroek egongo diren aukeren artetik gure negozioan kontsumitu dezaten. Beraz, 30.000€ gordeko ditugu hori gauzatu ahal izateko eta horrela gure salmentetan aurrerapenak egongo dira.

Argiago ikusteko taula bat osatu dugu ditugun kostuak azpi ataletan sailkatuz, ondoren errentagarritasun ataria ere kalkulatu dugu.

KOSTUAK	GURE KOSTUAK	GUZTIRA (urteko)
Kostu finkoak	1.500€ → 18.000€ urtean 30.000€ 30.000€	61.500€
Kostu aldakorak	300 → 300.000 hilabetean	3.600.000€

ERRENTAGARRITASUN ATARIA:

$$EA: \frac{KF}{p-KAU} = \frac{61.500}{900-300} = \mathbf{102,5 \text{ unitate}}$$